




IPIa %4,4 murriztu zen martxoan urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea

Urte bakoitzeko martxoa




Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, martxoan EAEko industria produkzioa aurreko urteko hil berean erregistratutakoa baino %4,4 txikiagoa izan zen. Beherakada hori ekipamendurako ondasunek (-%2,2) eta bitartekoek (-%7,2) eragin zuten. Aitzitik, energiak eta kontsumo ondasunek urte arteko %5,0ko eta %1,1eko igoerak eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

Maximo historiko berria afiliazioen kopuruan

Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Apirilean, Gizarte Segurantzako afiliazioak beste marka bat ezarri zuen EAEn, 1.024.840 kotizatzaile lortuta, hau da, iazko apirilean zituena baino %1,1 gehiago. Milioi bat afiliazio baino gehiagoren kopurua finkatzen jarraitzen da, serie historiko osoko daturik onenarekin. Apirileko igoera %1,3 izan zen emakumeentzat eta %0,9, berriz, gizoneentzat.



Apirilik onena 2008tik langabezia erregistratuarentzat

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Apirilean, EAEn erregistratutako langabezia %2,5 murriztu zen, aurreko urteko zifrarekin alderatuta.

Horrela, aurreko hilabeteetan izandako urte arteko murrizketa leunarekin jarraitzen du. Bai emakumeen kolektiboan, bai gizonenean, langabezia %2,5 gutxitu zen. Langabeen guztizko kopurua 106.811ra iritsi zen, 2008tik apiril batean jaso den txikiena.

Kontratazioak nabarmen egin zuen behera apirilean

EAEn erregistratutako kontratuak
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak



Iturria: SEPE.

Apirilean kontratazioa %11,9 murriztu zen aurreko urteko hil beraren aldean. Hain zuzen ere, Euskadin 49.000 kontratu baino gutxiago sinatu ziren, iazko apirilean baino 6.600 gutxiago. Kontratu mugagabeak 11.7004 izan ziren, guztizkoaren %24,0.